

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

4583

152/2019 DEKRETUA, urriaren 1ekoa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Caicedo-Yusoko Administrazio Batzarrak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: Caicedo-Yusoko kontzeju-mugarlean (Lantarongo udalerrria), ur-biltegitik herrigunera arteko hornidura sarea berritzeko proiektua burutzeko beharrezko ondasunak eta eskubideak.

Caicedo-Yusoko Administrazio Batzarrak, «Ur-biltegitik herrigunera arteko hornidura sarea berritzeko proiektua» delakoaren espedienteak formalki onartu eta gero, proiektua gauzatzeko lur guztiak erabiltzeko beharra adierazi zuen.

2018ko urriaren 28an, Caicedo-Yusoko Administrazio Batzarrak nahitaezko desjabetze-espedienteak hastea eta ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zuen, hamabost eguneko epean, prentsan eta 2018ko azaroaren 30eko Arabako Aldizkari Ofizialean (138. zk.). Geroago, 2019ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Caicedo-Yusoko Administrazio Batzarrak proiektuak eragiten dituen eskubideak eta ondasunak okupatzeko premiazkotasunaren adierazpena eskatzea erabaki zuen, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharrezko ondasunak eta eskubideak zehaztuta eta banakatuta agertzen dira dosierrean jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta bi alegazio aurkeztu ziren, administrazio-espedienteetan adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedienteak izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luzaezintzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Udalerrian, gaur egungo ur-hornidura sare orokorra oso kaltetuta dago: pitzadura ugari ditu eta ez du betetzen segurtasun eta higieneko araudia.

Ur-horniduraz gabetzea sahiesteko, behin-behineko hodi bat jarri da bidearen arekan. Baina behin-behineko irtenbide hau, hodia lurperatu gabe duela, arriskutsua da bidearen erabilerarako ez ezik, baita biztanleen osasunerako ere, hodiaren gainberotze arazoaren ondorioz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f) artikuluan xedatzen denez, Eusko Jaurlaritzari dagokio: nahitaez desjabetu beharrezko ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeko, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituen bitartean: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketa dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharrezko banakako jarduketak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde-antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari zegokion horretarako proposamena aurkezteko Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Hori dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak, 2019ko urriaren 1eko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

2019ko urriaren 8a, asteartea

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, nahitaez desjabetzeko, «Ur-biltegitik herrigunera arteko hornidura sarea berritzeko proiektua» burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak Caicedo-Yusoko Administrazio Batzarrak urgentziaz okupatu beharrekoak direla deklaratzeko. Berriaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztu eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aurretiaz berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Epeok dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.